


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Maiatzak 1, 148. zenbakia

ARKOk argitaratua, Udalaren laguntzarekin



**GERARDO
MENDIZABAL**
Marraketako
irakasle, eta ATBko
aurkezle



AMATen etapa berria

Jabier



ERAMAZU.

1.323.300 PTatik hasita

Clio S 92 c.v

Orain, 5 atekoa ere bai.

MECA, S.A.

ARRASATE

HEZIBIDEko ohizko Batzar Nagusia

Joan zen apirilean Ilean HEZIBIDEk bere urteroko Batzar Nagusia ospatu zuen. Elkarteko-hainbat partaide, Alkate eta Kultur Zinegotzi eta gure bailaran Hezkuntz munduarekin zerikusia duten zenbait bildu ziren urtearen emaitza izan dena begitatzeko.

Elkartearen Zuzendariaren Félix Ormaetxearen ahotik begirada bat eman zitzaion urtean burututako ekintzei eta gaur egun HEZIBIDEk dituen oinarriko eginkizun eta proiektuak ere ezagutzera eman ziren.

Hogei urte igaro dira "Liga de Educación y Cultura" ren eskutik hasita Hezkuntz Elkartek bere lan emankorra egiten hasi zenetik eta garaiz-garai jakin du egoera bakoitzari moldatzen eta malgutasunez azaldu zaizkion betebeharren aurrean bere norabideak egokitzen.

Gaur gero eta Talde sendoagoa izateko bidean dago HEZIBIDE.

Bere partaideen borondatea eta eskuhar-tzea ditu funtsean eta hemendik dator-ki Elkartek dituen goiburua eta utopiaren zailtasunak gainditzeko indarra.

Plan estrategikoa

Esan zen bezala, "Plangintza burutzen hasi denetik balore erantsia igartzen ari da, aurrerapen kualitatibo eta proiektuaren bate-ratasunaren kutsua nabaritzen ari delarik".

Ekintza Planaren garapenak eraman gaitu aurten Elkartearen hezkuntz filosofia, hel-buruak eta iharduera-prinzipioak definitzera, eta Taldearen artikulazioa birdefinitzera, es-tamentu bakoitzaren artikulazioa egokituz.



Era berean, elkarren arteko kompetentzia-ren ondorio negatiboak biguntzeko asmoz, datozen urteetarako planifikazioa burutu da Taldeak egingo duen eskeintza osoa zehaz-tuz, elkarren arteko osagarritasun printzipo-ari helduta.

	Partehartzaileak	Orduak
Zuzendaritza eta Gestioa	88	322
Eguneratze didaktikoa	226	743

Formakuntza

Giza Errekurtsoen Politika berri bati heldu dio HEZIBIDEk. Zuzendaritza, gestio-kargu eta irakaslegoaren profesionalizatzea eta eguneratzea da epe erdira Taldeak duen beste helburua.

Bukatu berria den ihardueran ugaria izan da aktibitatea. Disei-natuta dagoen Formakuntza Poli-tikaren barruan, bai HEZIBIDEren baitan, bai Irakasgintza Kooperati-ben Federakuntzaren eskutik, an-tolatu dira zenbait ikastarotan.

Hobekuntza proiektuak

HEZIBIDEk gaur egun eskuar-tean dituen proiektu anitzen ar-tean, bi azpimarra daiteke:

- LOGSE-aren aplikapenerako ezartzen ari den kultura pedago-giko berria hezkuntz-teknologia

gaurkotuak erantsiz.

- "Mediateka edo Dokumentazio eta Mass-media" zentro sare informatizatua sartzeko Akitaniarekin izenpetutako konbenioa, Fran-tziako funtzionamendu eredu transferituz horrela gure ikastetxeetara.

Kanpo aholkularitza

HEZIBIDEk bere ibilbidean hezkuntz munduan behar hainbat esperientzia eta eza-gupen duen zenbait pertsona-talde bat sortu du.

Honek une honetan kanpo aholkulari-tzan leheneño pausoak ematea ahalbidera-tu du.

Urrats hauen ondoren beste eskaera ba-tzuk ari dira sortzen aholkularitzaren esparrua dibertsifikatuz.

Lan asko egin da eta askoren aldetik, baina oraindik ere gai asko dago hobetzeko edo burutu gabe. Proiektuak eta asmoak ez dira falta.

Halaber, Hezkuntz mundua une hone-tan arazo larriak bizitzen ari dela eta jakinekoa da konponbideak ez dira samurrak.

Zailtasunen aurrean gure Taldeak beldur gutxiagorekin kokatzen da, aurreko ihardue-rek egoera abantailatsuan jartzen dutelako eta elkartasunak ematen duen segurantz-a eta indarra gurekin dauzkagulako.

Eta ezin da ahaztu proiektu kualitatibo hau aurrera eramateko ezinbestekoa dela proiektuaren euskarria den GIZABIDEA FUN-DAZIOAK ematen dion laguntza.



Azken bi urteetako ikasleen bilaketa

	Ikasle kopurua 91-92	91-92 / 90-91
E.A. - O.H.O./Preesc. - E.G.B.	3.027	+ 0,2 %
B.O. - G.B./B.U.P. - CO.U.	1.624	+ 3,3 %
L.H. IV.F.P. II - MODULO III	700	+ 3,1 %
Unibertsitat Maila/Nivel Univ.	1.409	+ 2,1 %
Guztira	6.760	+1,6 %

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi,
Joseba Vallés, Karmelo Urbarren, Hankamotz,
Atalaitaioan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon
Andueza, Udako Ingurugiro Eskola, Juan
Bautista Ágorria, Leintz Bertsoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo
Sailearen laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Kristaleko kolorearen arabera

Ezaguna da adagioa: nork bere behatokiko kristalaren arabe-rako ondorioak ateratzen ditu jazoera berdinetik. Objektibitateak bere hegoak galtzen ditu horrela, interpretapenetako dantza eroan galtzeko. Eta gizakien arteko diferentzia areagotu egiten da, irakurketa diferenteetarako ahalmen kontrolgaitza dela eta. Hau honela izan da gizonak planeta zaharrera agertu zirenetik. Eta ezin daiteke aldaketarik espero, hain zuzen ere gizonaren berezko izakerak interesen dibergentziara jotzen baitu sarriago, konbergentziara baino.

Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, Deustuko Unibertsitateko Deiker Institutuak Hego Euskal Herriko gizartearen baloreak aztertu ditu, arestian komunikabideek adierazi diguten bezala. Ohiturari jarraikiz, ikerketaren daturik interesgarrienak prentsaurreko batean azaldu ziren. Bada, biharamoneko egunkariak irakurri zituenak prentsaurreko diferentek zirela pentsa zezakeen, izan ere kontzeptu eta emaitza azpimarragarriak desberdinak bait ziren guztietan.

Noski, ikaragarri aspergarria izango litzateke gizartea, denok denerako aburukide bagina. Ziur aski,


bateratasun horrek antzutasuna sortaraziko luke lurarrongan, zeren garapenak iritzi-askatasuna exijitzen baitu. Baina, jaunok!, askatasunaren izenean seriotasuna ere erabili beharreko aldagaia dugu. Eta ez dirudi oso zaleak garenik alde horretatik.

Euskal gizartea europarra baino baimenkorragoa da; euskal gizartean Europan baino greba gehiago ematen da; euskal kontzientzia nagusi Hegoaldeko biztanlegoarengan; euskal gizarteak konfidantza gutxi administrazioan; horiek eta beste batzu ditugu, gorago aipaturiko prentsaurrekoak kazetariengan eragin zituen izenburuak. Egunkari bakoi-tzak aukeratutako esaldiak garbi azaltzen zuen egunkariaren nondik norakoa.

Hainbat bider bezala, azalean geratuko zen irakurlea. Zeharkako informazioak norberaren iritzian eragin okerra izan dezakeelarik, behartuta aurkitzen gara tendentzia desberdinetakoa komunikabideetara jotzera, objektibotasun pittin batez informazioa liseritzeko. Hori, euskaldunoi soilik lepora dakigukuen hutsa ez den arren, jeneraltasun horrek ez gintuzke lasaitu behar.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa 79 42 22



**Zatoz gure
gazte moda
ezagutzera**

**Italora Lizentziatua, 5
Tfnoa: 77 00 81
ARRASATE**



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



DANKAIR'T

Estetika eta Jleapaintzaile
Eskola

M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerrias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

HB eta pertsonaleko politika

Bada alderdi politiko bat bere manifestazio eta mitinetan Herri Langile Euskaldunak eta Herri Langile Euskaldunarentzat sortutako talde politiko bat dela oihukatzen duena.

Alderdi politiko hori berori, Arrasateko Udalean behinik-behin, langileok ditugun eskubide apurrak zapaltzen saiatzen da, "jefeen" eta gainerakoen soldaten arteko ezberdintasunak gero eta handiago izan daitezen saiatzen da, langileen artean enbidia pizten saiatzen da, euren artean etengabeko diferentziak egiten ditu eta abar, etab.

Aldibaterako kontratuak bultzatzen ari da, beharren benetako azterketarik egin eta horrela lanpostu finkoak sorrarazteko aukerarik sortu barik. Gainera, aldibaterako lanpostuak betetzen dituztenak euren orbita politikoan mugitzen direnak dira.

Ez dute egungo langileen artean barne promozioa sustatzen eta horrela beste gauza asko...

Ez bazenekiten ere, alderdi hori HB da.

GAINERA KOETATIK BAT

Kooperatibistok: Gora maiatzaren lehena!

Gizartearen gehiengoak jasaten duen zapalketa eta desberdintasunak mantendu nahi dituztenak Euskal Herriko langilegoarengan bereizketak sortarazten saiatu izan dira beti.

Kooperatibistak, emakumeak, langabezia daudenak, nekazariak, osasunekoak... eta horregatik, bakarrik gure arazo amankomunak partzelatu nahi dituzte. Hala ere, ontzi berdineko bidaiari gara guztiok eta gizarte honetako agintarien ahaleginen aurrean—governua eta dirudunak—batu beharra daukagu, batera erantzun behar diogu F. Gonzalezek europar bihurtu gaituzten aurkeztu digun "konbergentziarako plan" lotsagarriari.

Kooperatibistak ere aintzindari dira langa faltsuak sortzen: enpresa gurea omen dela eta, erabili egin nahi gaituzte. Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, enpresetan asanbladatasun gehiegi dagoela diote. Edozein multinazionalen bezala, hemen ere bazkideen gehiengoak baztertu egin nahi dute, erabakikortasuna multzo exekutiboaren eskuetan utziz. Beldu-

rra diote banakako bozketari eta gaurko barne demokrazia eskasari. Maiatzaren leheneko eskaerak bi ardatzetan mugitzen dira:

1) Langilego osoarekiko elkartasuna plangintza ekonomikoaren aurka.

2) Kooperatibisten plataforma propioa:

- Soldaten igoera antzinatasunik gabe.

- IPCaren igoeraren araberrako igoera, gehi puntu bat.

- Kooperatibetako lanpostu galtzearen borroka.

- Egutegi mugikor eta desplazaturik ez.

- Gure lanpostuetan eta lan eratako aldatketen kontra: lan taldeak, MTM, Toyotismoa...

- Ingurugiroaren defentsa, kooperatibistek egindako kutsadura era ezberdinen kontrola.

- Osasunaren defentsa tinkoa, higie eta Segurtasun Komiteak bultzatuz, medikuntza alternatiboa Lagun Aron sartuz: naturismoa, masajeak, akupuntura...

- Higie eta Segurtasun komiteen berbidarakea, ingurugiroari dagokiona bere egin-kizunen artean sartuz.

- Euskara: Maila guztietan euskara indartu. Euskara ikasteak dohainik eta lanordutan gauzatu behar du izan bazkideentzat. Lanpostuei, dokumentuei dagokienez, euskararekiko gutxiengo esigentiaren onarpena.

- Berdintasuna emakumeentzat, diskriminazio ongari baten bidez bere promozio profesionala bultzatuz.

Gure ustetan plataforma hau kooperatibetan aztertu ondoren erakunde sozialekin negoziatu behar da (B. Soziala, B. Iraunkorra...)

Asanblada Orokorretarako gure proposamenei laguntzeko eskatuz, maiatzaren 1erako ezker sindikalak deitutako manifestaldietara gonbidatzen ditugu kooperatibistak.


K. T.

ZUZENKETA

Joan den asteko Arrasate Pressen Joxemari Mujikaren "Norbere hizkuntza ez da aukeratzin" izenburudun artikuluan, "Madrilartrek edo Londrestarrek espainolaren eta ingelesaren artekoa egin duten bezala..." dioen lekuan "espainolaren eta ingelesaren artekoa ezin duten bezala" behar zuten.

ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzezlifo, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Ba al du zentzurik maiatzaren 1. ospatzeak?



Juan Jose Hermida
(Ikaslea)

Bai, langileak dauden bitartean langileen egunak badu bere zentzua eta horretarako maiatzaren 1a aukeratu badute, ondo dago.



Arantxa Sanjose
(Pentsionista)

Urtean behin langileok hemen gaudela gogoratzea ondo dago. Manifestaldiek ere gure interesak defendatzeko balio dute.




Xeli Mendizabal
(Irakaslea)

Bere zentzua badu, oraindik gauza asko daudelako aldarrikatzeko, eta ospatzeko ere bai.



Daniel Dominguez
(Banatzailea)

Gaur egungo egoera ikusita, langabetu kopurua altuegia da, ez du zentzu asko. Presio gehiago egiteko premia handia dago, oraindik gauza asko daude eta egiteko.



Jose Luis Torres
(Bankuko langilea)

Lana denontzat egongo balitz, izango zuen bere zentzua, baina gauzak dauden bezala egonda, ez du zentzu handirik.



Kontxi Etxeberria
(Irakaslea)

Lehen baino askoz ere zentzu gutxiagoa du. Hala ere oraindik langileek, euren eskubideak defendatzeko premia ikusten du.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZTA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasas	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



1

OSTIRALA

• Zinea: Alai: "Detective con medias de seda" (5-7.30-10).

• Langileen eguna.

• San Andres auzoko jaiak: Eguerdiko 12etan herri kirolak Iñaki Perurenarekin eta Lore Gazteak taldea. Arratsaldean, umeen jaialdia eta txarranga. Gauean Panama orkestarekin dantzaldia.

• Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola.

Gauetz: Camacho, Bergara.

2

LARUNBATA

• Zinea: Alai: "Bugsy" (5-7.30-10)

• San Andres auzoko jaiak: Goizeko 11etatik aurrera futbito finalak eta gimnasia errit-mokoko erakustaldia. Arratsaldeko 4.30etan ezkongai eta ezkonduen arteko partidua eta *Corazón de Encina* dantza tal-

dearen erakustaldia. Gauetz, Basakabi taldea.

• Goardiako farmazia:

Egunez: Irizar, Erguin.

Gauetz: Puy, Bergara.

3

IGANDEA

• Zinea: Alai: "Bugsy" (5-7.30-10)

• San Andres auzoko jaiak: Umeentzako lasterketak eta jaialdia.

• "De Treville" pastoralak Iruren (Zuberoa), autobusak Garibain goizeko 8etan.

• Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina.

Gauetz: Puy, Bergara.

4

ASTELEHENA

• Zinea: Alai: "Bugsy" (7-9.30)

• Plumila erakusketa irekitzea, Monterronen.

• Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala.

Gauetz: Guallar, Bergara.

5

ASTEARTEA

• Zinea: Alai: "Bugsy" (7-9.30)

• Hitzaldia: "Kontratazio mota eta langabezi-lege berria", Gaztetxean arratsaldeko 7etan.

• Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres.

Gauetz: Estella, Bergara.

6

ASTEAZKENA

• Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías.

Gauetz: Mozos, Bergara.

7

OSTEGUNA

• Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz.

Gauetz: Camacho, Bergara.

Kirol Agenda

Futbola

• Mondra eta Zornotzaren arteko partidua, igandean arratsaldeko 5etan, Atxabalpen.

• Centraljet eta Patronato taldeen arteko partidua, larunbatean arratsaldeko 6etan.

Futbitoa

• Zaldibarko Futbito Txapelketako finalerdiak, ostirala eta igandean 11 eta 12etan.

Saskibaloia

Txirrindua

• Txirrindulari eskolen probak, larunbatean arratsaldeko 4.30etatik aurrera Eskoriatzan.

Jaiak


• Aitzorrozko jaiak

Bihar larunbata eta igandean Eskoriatzako Aizorrozko jaiak ospatuko dira. Bihar arratsaldeko 8.30etan "Capellades-eko abesbatzaren kantaldia izango da San Viatorreko kapelan eta bestalde, gaueko 10etan bertso saioa Eskoriatzako kiroldegian Peñagarikano, S. Lizaso, A. Egaña, J. Sarasua, Olalde eta Zeberiorekin. Gai jartzailea Nikolas Segurola izango da. Igandean goizeko 9.30etan Aizorrotzerako irteera izango da, eta bertan 11eta meza ospatuko da. Ondoren Naiara Ezeizari omenaldia egingo zaio. Arratsaldeko 6etan, herritarrek egindako tortilak dastatzeko aukera izango da Herriko plazan eta Txintxarri taldearekin dantzaldiak jaiari amaiera gaueko 11etan.

Erakusketak

• Plumila

Datorren astelehena 4tik aurrera plumila erakusketak izango da Monterronen Benito Zumalderen eskutik. 25-30 obra ingururen bidez, Arrasateko betiko txokoak erakutsi nahi dizkigu. Beste 14 aldiz aurkeztu ditu bere plumilak eta Arrasaten ere ez da hau lehen aldia.



San Andresko jaiak

Igandera arte hainbat ospakizun

Asteburu osoan zehar auzoko jaiak ospatuko dituzte San Andres auzokoek, eta bertara hurbiltzen direnek. Jaien hasiera gaur izan bada ere, ospakizun gehienak astebururako utzi dituzte. Ostiraleko egitarauko aipagarriena goizean burutuko den herri kirol saioa da, bertan aizkolariak, ahari jokoa... eta *Iñaki Perurena* harrijasotzailearen erakustaldia ikusi ahal izango dira. Horretaz gain, *Lore Gazteak* taldearen dantza erakustaldia, haurrentzat txokolatada eta Panama orkestarekin dantzaldia izango dira.

Larunbatean, berriz, umeen futbito partiduak jokatuko dira, kuadrilen arteko lehiaketa burutuko da, auzoko ezkongai eta ezkonduak futbol partidua jokatuko dute eta *Corazon de Encina* taldearen dantza erakustaldia izango da. Ohi denez, gauean dantzaldia, *Basakabi* taldearekin. Jaiari bukaera emateko, igandean umeentzako lasterketak eta jaialdia izango dira, baita auzoan ibiliko den txaranga ere.

• Anagramak

Abaroako aretoan, maiatzaren 4tik 17ra bitartean Ibai-Arteko logotipo lehiaketan parte hartu duten lanekin erakusketa egingo da.

Hitzaldia

• Kontratazioak eta langabezia legea

Asteartean, hilak 7 Gazte-txean "Kontratazio-moetak eta langabezi-lege berria" izenburuko hitzaldia burutuko da. Hizlaria Marian Esnaola sindikalista.

Txirrindua

• Zikloturisten irteera

Astebururo legez, Deba Garaia zikloturista taldeko partaideek ibilbide berria egingo dute igande honetan, oraingoa 76 kilometrotakoa: Arrasate - Oñati - Udana mendatea - Azuria mendatea - Zerain - Segura - Beasain - Arrasate. Deba Garaia taldekoekin atera nahi duenak, geltoki zaharraren aurrean egon beharko du goizeko 9.15etarako.

Ikusten denez, denboraldia aurrera joan ahala gero eta ibilaldi gogorragoak.

Ikastaroa

• Joskintza Industrial

Udalak eta Deba Garaiko Mankomunitateak antolatuta, maiatzaren 25etik 1993ko martxoaren 30a arte Joskintza Industrialari buruzko ikastaroa burutuko da. Ikastaroa lan barik dauden emakumeei zuzenduta dago, gutxieneko joskintza eza-gupena dutenei eta era berean lan-munduan sartzeko prest daudenei. Ikastaroaren helburuak bi dira: alde batetik, josteko makinaren erabilpena joskintza industrial katean egiteko, eta bestetik kooperatiba eta enpresa-gestioari buruzko prestakuntza eskaintzea.

1.200 orduko iraupena izango du ikastaroak, honela banatuta: lehen hiru hilabeteetan egun erdiz, goizeko 8etatik 12etara edo arratsaldeko 2etatik 6etara. Azken sei hilabeteetan egun osoz, goizeko 8etatik 12etara eta arratsaldeko 2etatik 6etara.

Ikastaro honetan izena eman nahi dutenek maiatzaren 15a arte daukate denbora, baina plazak mugatuak direnez azkar ibili beharko dute benetako interesa dutenek. Informazio zabalagoa lortu edo matrikula egiteko Arrasateko Udaletxeko Enplegu-Dinamizatzailearengana edo Deba Garaiko Mankomunitatera jo daiteke.

Autobusak

• Herri Urrats

Datorren maiatzaren 10ean, ohi denez, Senperen Herri Urrats ekitaldia burutuko da. Hori dela eta AEDk autobusa jarriko du, 900 PTAtan. Izena emateko epea maiatzaren 8an bukatuko da, eta horretarako tokiak AED, Hire liburudenda eta Iturriotz taberna dira. Informazio zehatzagoa AEDn bertan.

“Egunkari honetatik Arrasateko Eskualde Ospitalean sortzen ari den egoera salatu nahi dut. 1991ko abendura arte atentzio dezentea jasotzen genuela uste dut, baina badirudi Osakidetza lehenetara itzuli dela: nire kabezerako medikua, nire konfidantzakoa, lekuz aldatu dute. Aldaketa horiek eragina dute osasun zerbitzuan: mediku berriaren izena ikasten dudanerako, beste bat ekartzen dute. Oposizioak noizko? Noiz arte beteko dira interinoekin beharrezko diren osasun lanpostuak?”

Badirudi gauza luzarorako doala, eta horren frogarik nabarmenen bezala, badakit jakin famili medikuak orainarte interinotzat geneuzkanekin aldatzea erabaki dutela, eta horiek ez dute kabezerakoek adinako prestakuntzarik”.

(Amaia Zuluetak Egin Egunkarian. 1992-IV-22)

“Gasteizko hitzarmenaren helburu nagusia zera dela: Euskal Herriaren oinarrizko eskubideei buruzko jarrera guztiak edozein modutara oztopatzea eta ezeztatzea. (...)”

Gasteizko hitzarmenaren balantzearen beste aldean estatutua betetzeko hitza dago, berriz ere errekarik ez dagoen unean ezarri digute errota, estatutua irestontzi bihurtzen ari baita poliki-poliki, gaur eskaintzen dizkiguten ahalak eta konpetentziak bihar erabakiko bait dira Europa mailan (atzo ez badira izan erabakiak), eta hor Madrilek bakarrik du hitza (...)

Franco hil geroztik Madrildik entzun dugun egia bakarra, Hego Euskal Herrian hezur-mamitzeko pauso garrantzitsu baten aurrean gaudela”.

(J. M. Pagoaga, “Peixotok” Egin egunkarian, 1992-IV-26)

Zer garrantzi dauka kontsumoak hezkuntzan?



Egun hauetan Arrasateko KIUB-en, Eskolan kontsumitzailearen heziketaren didaktikaren inguruan, irakasleentzat zuzendutako hitzaldiak egiten ari dira, publizitatea eta eskolaz kurtsu monografikoa.

Ekintza hauek eskolan kontsumitzailearen heziketaren inguruan kokatzen dira. Badira horretarako arrazoi batzuk. Arrazoi hauek, hezkuntzaren erreformaren “Oinarrizko Curriculum diseinuan” agertzen dira, hezkuntz erreformaren eduki berri bezala.

Edozein pertsonaren bizitzari begiratzan badiogu, laster ikusiko dugu ugari direla ondasun eta produktu kontsumitzaile eta zerbitzu erabiltzaile gisa dihardutenak. Egoera honen aurrean beharrezkoa da hiritarrek errealitateaz kontzientzia hartzea, kontsumitzaile gisa dituzten eskubideak ezagutu eta egunero baliaraz ditzaten, arazoak konpondu eta erabaki kontzienteak eta beren premietara egokituak har ditzaten, kolektibitatearen eta ingurunearen aurrean erantzule direnak, erabakiak alegia, norbanakoaren askatasunaren defentsa eta baieztapenezko ekintza gisa.

Kontsumitzailearen Hezkuntzak hiritar kontziente eta kritikoak prestatzen laguntzen du, kontsumo-gizarteak sortzen dituen arazoak konpontzeko aukera emango dioten ezaguera eta jarrerak neska-mutikoei eskuratzu, bizi-kalitatea hobetu. Beste hitz batzuetan eta termino hedatu samar bat erabiliz, Kontsumorako Hezkuntzak pertsona kontsumista “kontsumerista” bihurtu nahiko luke.

LUIS MARI ALVAREZ,
IRAKASLE ESKOLAKO IRAKASLEA.

Berango



**Sukalde-altzariak,
mahaiak eta
aulkiak**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Olarte, 30 Tfnoa: 79 77 11. ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

Pando

**PINTURAK eta
PAPERREZTAPENAK**

Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

Goi mailako Ostalaritza Eskola

OÑATI

Arrasateko Eskola Politeknikoaren babespeko eskola honek 1992-1993 ikasturterako izen emate epea maiatzaren 15ean zabalduko du:

Eskaintza.

• HEZKUNTZA EREDU BERRIA

- 1go I.E.E., zerbitzu arloko praktikekin.
- 2. mailako sukaldaritza lanbide modulua.
- 3. mailako harrera-lanbide modulua.

• PEDAGOGI AZPIEGITURA AURRERATUA

- Laborategiak eta ordenadore gela.
- Aplikazio hotela eta jatetxea.
- Sukalde pedagogikoa.

• ZERBITZU ABANTAILAK


- Instalakuntzak.
- Kokapena (Oñatin, erdigunean).
- Garraioa eta jangela.
- Eskolaz kanpoko kultur ekintzak.

• IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA

- Talde txikiak.

• IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA

- Ostalaritza arloko profesionalak.
- Hizkuntza ezberdinen irakaskuntza.
- Informatika.
- Dietetika.
- Teknologia.
- Osasuna.



**1992-1993 ikasturterako izen emate epea
maiatzaren 15etik 29ra izango da.**

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak bidalitako aurreinskripzio inpresok norberaren ikastetxean izango dira eta ikastetxean bertan izen emate eskaera Arrasateko Eskola Politeknikoari, eta ostalaritza edo harrera adarrean bereziki, egiten zaiola azpimarratu beharko da.

□ Musakolako urbanizazioa

Musakolako A-20 guneari irtenbide bat eman zaio, urbanizatzea erabaki bait da. Irailean Gipuzkoako Foru Aldundiak, Hirigintza S.A. enpresak aurkeztutako proiektua onartu zuen. Udaltxean izandako azken ohizko bilkuran proiektuaren zehazpen eta lehengo aurrekontuari 9 miloi gehitzea aurreikusi zen. Proiektu honek errepideen hobekuntza, oinezko paseokak gehitzea, zerbitzu eta hornikuntzen hobekuntza eta 200 aparkaleku berri eraikitzea. Era berean, alkantarila, argikuntza, gas eta telefono sarearen hobekuntza aurrekontu berean sartzen dira.

□ Hobekuntzak igerilekuan

Asteheneneko Gobernu Batzordeak Musakolako Igerilekuan egin behar diren hobekuntzak onartu zituen, alde batetik garbitasunari eta bestetik mantentimenduari dagokien hobekuntzak. Igarilekuko garbitasunari dagokionez, pizinarean hondo automatikoki garbitzeko tresneria berria erostea erabaki zen. Tresneria hori Juper Bat enpresari erosiko zaio, 1.101.000 PTako aurrekontuaz. Bestalde, gauez pizina estaltzen duen sare isotermikoa aldatzeko erabakia ere onartu zen, uraren tenperatura mantentzen duen sarea alegia; sare isotermiko berria jartzeko enkargua Mentxaka enpresari egin zaio, 1.300.000 PTa gatik.

□ Ekin Euskarari Arrasatera

Irailean Ekin Euskarari erakusketa Arrasaten izango da, Monterronen zehazki hilaren 18tik 27ra bitartean, Udala eta Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiaren artean akordioa lortu eta gero. Horrekin batera, egun horietan behintzat, azken urteetan egin den bezala Pastoralak ikusteko aukera izango da Monterronen.

Txandaka

INJINERUTZAKO ERREFORMAZ

Estatu guztiko Injinerutza Tekniko Industrialeko ikasleek karrera horretarako unibertsiterako erreforma legea dela eta eginiko azken mobilizazioen harian, (manifestazioak, txirringularien marxta...), herritar arruntaren belarrietara iritsi da dagoeneko urte askotako historia duen arazo bat.



Miren Aranbarri (*)

Ikasketa hauen gaur egun planteatuta dagoen era berez ikuspegi askotatik nahikoa ez bada ere, frogatuta dago positiboki baloratzen dituela eta hauetan ematen diren edukin zientifiko eta teknologikoak eskatzen dituela enpresak.

Hezkuntza Ministeritzak, gainerako unibertsitate ikasketetan hainbat erreforma onartu ondoren, Injinerutza Tekniko Industrialerako onartu nahi dituen ikasketa-planean ez da kontutan hartzen ikasketen edukina, ez eta industriak egiten duen titulatu eskaera ere, eta besterik gabe, itxuraz logikarik gabe,

ikastorduak %33an gutxitzen josten du.

Gaur egun estatu guztian injinerutza hau ikasten ari garen 60.000 ikasleetatik, 1.000 inguru Arrasateko Eskola Politeknikoan ari gara eta bizi dugun segurtasunik gabeko egoeratik, arazoari buruzko informazioa

jendeari eman beharrean gaude.

Segurtasun ez horren eraginez, ezin dugu jakin "erreforma" horrek zenbateraino okertu dezakeen gure ikasketen etorkizuna, injineru tekniko industrial moduan dugun etorkizuna eta, azken batean, oinarri industrialak duen gizarte honen etorkizuna, injineru teknikoetan aurkitzen geure gizarte honek bait du industria era konpetitiboan garatu dadin behar duen euskarrietako bat.

(*) **ESKOLAKO INJINERUTZAKO IKASLEEN ORDEZKARIA**

HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra, belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



J. Ramón Otamendi

HARATEGIA

Ferrerrias, 20 · Tel. 79 62 28

ARRASATE

Usteak uste

“1992ko lehen hiruhilabetean 114 euskal lantegi itxi dira bertako langilegoa, 1.205 langile, kalean geratu delarik”, horrela zioen egun hauetan egunkarian irakurritako albiste batek. Zenbat gehiago izango dira urtea bukatu arte?

Ziur asko enpresa hauek ez ziren izango Acenor edo AHV bezain handiak, ziur asko bertako langilegoak ez du azken lantegi hauetakoeke beste mobilizazio egin, izan ere ez antolamendu aldetik ez indar aldetik, ez zukeen ezer asko egiteko gaitasunik, baina 1.205 familia jende asko da. Enpresa handian birziklatu edo isten dituztenean, bertako problematika bakarrik azaltzen dute sindikatuek, prentsak, e. a. baina ez da kontutan izaten, hauen menpe dauden hainbat lantegi txikik itxi behar izaten dutela ondorioz.

Eta guzti hau gutxi balitz, langabeziari buruzko lege berria ezartzen digute, gogorragoa noski, eta gizarteko kolektibo ahulenetariko batengan eragiten duena. Ez da posible beste irtenbiderik? Ez da posible dagoen lana era berdintsuago batetan banatzea? Edo ez da komeni?

Hemen dugu aurten ere Maiatzaren lehena, Langilearen Nazioarteko Eguna. Agian urteren batean, urrin gabe, langabetuen eguna izan beharko du, hauek bait dira benetan, gizarte honetan ematen ari den bilakaera ekonomiko basati honetako explotaturik explotatuenak.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU



Eulogio Carrión, 33 urtekoa guarengatik hil zen

Langile bat hilik Gorostizan

Metalgintza eta eraikuntza 41 hildako iaz Gipuzkoan

Pasa den astelehenean, Eulogio Carrión 33 urtetako gazte gazteiztarrak bizia galdu zuen Gorostizako etxeen obretan lanean ari zela, gruak jo, eta Eulogio kolpatu zuenean. Hautsi zen guaren zatia, guztiz erdoilduta zegoen itxuraz. Orain aste batzuk, Ibon Abasolo gazte arrasatearra galdu zuen bizia Bergaran beste lan-istripu batean. Oso epe motzean, lan-istripuen ondorioz, bi heriotza hementxe bertan.

Aurrekoak askotxo dirudi, baina ia-zko urteko estadistikei begirada bat emanez gero, zoritxarrez argi dago lan-istripuak maiz gertatzen direla, maizegi agian.

Iaz, 1.217.310 lan-istripu gertatu ziren Estatu Espainarrean; horietatik, Euskal Herrian 112.913: 20.686 Nafarroan, 13.986 Araban, 31.496 Gipuzkoan eta 46.745 Bizkaian. Gipuzkoako datuei begirada bat emanez

gero, aipatu behar baja izan zirenak 14.554 izan zirela eta baja gabeko lan-istripuak 16.037. Bajadun istripu horietatik 14.285 larritasun handi gabekoak izan ziren, 228 larriak eta hildakoak, berriz, 41.

Baja izan ziren 14.554 horien sektoreak ere iker daitezke, lanbide arriskutsuenak zeintzuk diren ikusi asmoz. Nekazaritzan, Gipuzkoa mailan eta urte osoan, 554 lan-istripu eman ziren, 530 larritasun gabekoak, 20 larriak eta beste 4 hildakoekin. Industrian, berriz, 8.486 lan-istripu: 8.372 larritasun barik, 103 larri eta 37 hildako. Eraikuntza ere sektore arriskutsuenerikoa da, 2.057 lan-istripurekin; 2.012 arinak, 35 larriak eta 10 hildakoekin. Azkenik, zerbitzuen sektorean iaz 3.457 lan-istripu gertatu ziren: arinak 3.371, larriak 70 eta 16 heriotz. Datuok esanguratsuak, duda barik dira.

URONDO
elektrizitatea



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

□ Lau enpresa eraikitzaile Larrearako

Larreako 110 etxebizitzak egiteko lau enpresa eraikitzailek aurkeztu dute proiektua Udaletxean: Construcciones Azse, Tecsca Empresa Construcciones, Dragados y Construcciones, eta Fomento de Construcciones y Contratas.


Lau proiektuak aurkeztuta, orain Proginsak hamabost eguneko epea izango du bat aukeratzeko. Gauzak horrela, maiatzaren erdirako jakingo da zehaztasunez etxebizitzaren prezioa eta orduan sinatu ahal izango dira kontratuak.

□ 65eko kintoen afaria

Maiatzaren 9an 65ko kintuak, 44an jaiotakoek, afari baten inguruan bilduko dira Santamainako Elkartean, gaueko 9.30etatik aurrera. Afari horretara joan nahi duzuenok San Andres tabernan, Champi bodeguillan edo Erguineko Jubilatuen egoitzan eman izena.

□ Entsaizateko lokal berria

Arrasateko musika taldeek entsaizateko lokal berria izango dute laster. Udalak zortzi miloi erabili ditu, Musikolako auzoan depuradora zaharren ondoan egongo den lokalaren berrikuntzan. Bete beharko diren baldintza batzuk ere jarri ditu eta orain arte hamazazpi taldek eman dute entsaizateko izena. Lokala Udalala uzten die eta bestelako tresneria guztia eurek jarri beharko dute.



Aurten iaz baino 48 ebakuntza gehiago izan dira Eskualde Ospitalean

Ebakuntzak gehitu Ospitalean

Batazbeste 6,6 eguneko egonaldiak egiten dira

Eskualde Ospitalean 539 ebakuntza izan dira 1992. urteko lehen hiruhilabetekoan, iaz baino 48 gehiago. Aktibitatea gehituz joan da plantilarekin batera, gerentziaren esanetan.

Ondorioak neurtzea ez da oso erraza, baina estadistikek diotenez, Arrasateko Ospitaleak 6'6 eguneko media dauka gaisoen egonaldietan, inguruko kopuru txikiena. Dena den, eskualde ospitaleek izaten dute media txikiena.

1991. urteko datuak erreferentzia moduan harturik Eskualde Ospitalean, 3.077 ingreſu izan ziren eta 20.226 egonaldi guztira, eta horietan programaturikoak eta urgentzietakoak desberdin-

tzen dira; bakoitzaren barne anestesia generaldunak eta lokaldunak. Bestalde, guztira 2.017 larrialdi izan ziren 1991. urtean. Aipatzekoa da urgentzia kopuruak izandako gorakada, 17.142 urgentzia atenditu ziren eta hoietatik 472 kirolanoetara pasatu. Izandako urgentzia hauetatik batzuk beste ospital batzuetara eraman ziren, 150 gutxigorabehera, bertako zerbitzuekin atenditzea ezinezkoa zelako.

Kontuan izan behar da Deba Garai guztiko gaixoak zuzentzen direla Arrasatera eta honetaz gain, badaude salbuespen batzuk, Elorrio, Deba Behea eta Mendarokoak adibidez.

BAZEN GARAIA, KALEAN DAGO!

LUR HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOA

10 ale, 120.000 hitz, 500 mapa, 1.500 marrazki, 8.000 argazki

INFORMAZIOA:

Lurdes Berasategi. J. L. Iñarra, 30. Tfnoa: 79 20 19

Konpromezu barik LUR HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOAri buruzko informazioa jasotzea nahi dut


Izen-deituak:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa:

BAKARRA EUSKARAZI!



Denbora aurreratzeko agiri guztiak eraman behar dira

K.I.U.B.en bideo informatiboa

Udaleko Gobernu Batzordeak K.I.U.B., kontsumitzaileen bulegoaren bideo informatiboa egin du 400.000pezetako produkzio kostoaz. Zabaltzen diren informazioak, Arrasateko azokan kokatuta dagoen bulegoan finkatzen dira batez ere, lokalizapen ezaugarriak zehaztuz. 10-15 minututako bideoan, ahalik eta zehatzen informazio bloke batzuk sartzen dira eta sketch gisa, egunero bizitzan gertatzen diren kasu konkritu batzuk: etxeko aparailuen konponketa, janarien egoera txarrak. Bulegoaren ezagupena zabaltzea eta bere erabilpenak zehaztea da helburua. Kontsumitzaileak dituzte eskubideak defendatzen laguntzen du K.I.U.B.ak: iruzur publizitarioa, maltzurkeria, elikagaien manipulazio desegokiaren ondorioz zapaltzen diren eskubideak defendatu nahi ditu.



Errenta aitortpena Bergaran


8.30etatik 2etara eta txanda hartu barik

Errentaren aitortpen mekanizatua egiteko aurreko urtetan Iturriotz kaleko Lan Kide Aurrezkiaren bulegoetara ere jo bazitekeen, aurten Foru Ogasunak Bergarako Mintegi kaleko 5ean dituen bulegoetan egin beharko da derrigoar. Ordutegia, goizeko 8.30etatik eguerdiko 2etara da. Beste bulego batzutan ez bezala, ez da txanda hartzerik egongo eta iritsi ahala iladan hartuko dira aitortzaileak. Bidaia bakarrean dena egin ahal izateko, paper guztiak eramatea eskatzen zaie hara joan behar dutenei.

Orain arte jendetza handirik ibili ez bada ere, badirudi gehituaz doala, goizeko azken orduan pilaketak egiten direla eta. Aste honetako datu batzuk aipatzearen, asteartean 279 lagun izan ziren itzulketarako eskubideaz aitortpena aurkeztu zutenak eta 22 milioi inguru itzuliko zaizkie. 25 izan dira aitortpen positiboa egin behar izan dutenak. Azken horiek 1.290.889 PTA. ordainduko dute denen artean.

Iazko datuei begira, iaz 17.786 aitortpen mekanizatu aurkeztu ziren Bergaran eta aurtengo 19.500 lagun inguru espero dira

Orain arte jendetza handirik ibili ez



EGVZKIGRAF

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrial
Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41



ALMACEN DE MUEBLES

Prezio paregabeak!!
Zatozte!!

Legarre pabiloia. Gipuzkoa Etorb. 6.
ARRASATE Tfnoa: 79 73 32


ESTRELLA taberna

Txanpinoiak eta pintxo
morunoak dera gure
espezialitateak.

Elkano, 3 Tfnoa: 79 20 82



Fagor Ederlanen, ia urte hasieratik **traje berriarekin dabilta lanean**. Trajeek, sutondoan lan egin behar dutenek izan ezik, ez dute aparteko berezitasunik, mahoizkoak eta Fagorren anagramadunak. Dirudienez, oraindik langileek ez dute uniforme berria eramateko obligaziorik, baina gehienek jantzi dute.





Pasa den ostiral iluntzean, Arrasateko *Lurralde*a Koordinakundeak deituta autobiairen **San Lorentzo trazaraketaren onarpena ospatzeko** jende ugari aterazen kalera eta baita jai-giroko ekintza burutu ere, etxaflero eta guzti.

San Frantzisko Xabier ikastolako 6-7 talderen bisita

izan genuen gure artean. Nahiz eta talde bati bakarrik argazkia atera, neska mutiko ugari pasa ziren hemendik. ▶



SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea,35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

OTXOĀ

Hazi aukeratuak, pentsuak eta fitosanitarioak

Mondragones, 1 ARRASATE
Tfnoa: 79 86 70

OLA-OSTE

Kirol denda

Bizkaia Etorb. 10
ARRASATE
TFNOA: 79 65 34



Izen
PROPIOAK

● **Javier Mar Medina**, 36 urteko Aretxabaltarra orain arte Arrasateko ospitalean dokumentalista lanetan egon ondoren, Mendarora joan zaigu mediku-zuzendari kargua betetzera. Javier Iruñeako unibertsitatean espezializatu zen familliko medizinan.

● **Diara**, diseinu enpresako taldea izan da Ibai-Arteren logotipoaren lehiaketan irabazlea. Guztira sei logotipo aurkeztu dituzte eta hoietatik bat aukeratu da.

● **Jon Zuazabeitia**, 28, atxabaltarra, izango da aurrerantzean Arrasaten euskararen erabilpena bultzatzeko hitzarmeneko teknikaria. Jonek albaiarritza ikasi zuen eta Arabako Artalden eta Eskualde Ospitalean zeladore gisa egin du lan. Orain urtebeteko kontratuaz hasiko da Udalean.


▲
Udalaitzeko gailurrera igotzea beti izan da apusutugai. Beste hainbeste sortu da **Ines Gardoki** eta **Mertxe Iturrinorekin**: apustuak eta zalantzak sortu dira igo ote zuten ala ez. Hor biak tontorrean, **Inazio Balzategi**, Udalaitezaleen lehendakaria, **Jon Ugalde** eta beste askorekin.



Pasa den astean zehar eta larunbatera arte, **Beni Uzkiñok** eta bere ikasleek egindako **eskulanen erakusketa** ikusteko aukera izan dugu Monterronen, kuadro, pintura, zeramikazko eskulanak... ▶

20.30 - 21.00

MUGAZ GAIN




HERRI Irratia



T x e m a
Auzmendi

OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99'8



Sebero Altube plazako banku bat puska-tu dute; behar bada gura barik, baina egun batetik bestera puskatuta agertu da. Jendeak, beheko partean jarri beharrean goiko partean jartzeko ohitura dauka eta gura barik izan bada seguruen horregatik izango zen. Gurata izan bada...



◀ **Ibai-Artek**, erdialdeko merkatarien elkarteak, badu bere **anagrama**. Pasa den larunbatean aukeratu zuten "Hamabost taldea" irabazle bezala. Diara industri diseinu taldea da anagrama honen atzean dagoena. Guztira, 120 baino anagrama gehiago aurkeztu ziren lehiaketan.

▲ Zaldibarko Futbito Txapelketako irabazleentzat izugarrizko **kopa dotorea** enkargatu dute antolatzaileek. Diru kontuak aipatzea ez da gauzarik politena izaten, baina jakin dugunez garaikurraren prezioa 80.000 PTAKoa da. Ez da ez nolana hiko saria.



IRAGARKI HAU 5.800 ETXETAN SARTU DA.

**ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ARRASATE PRESS AUKERATUZ GERO.**



Eup!

Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu lerro hauetan, aurrelariaren aurkako norgehiagokan, eskuak erabiltzeko aukera dutenez, abantaila izaten dutela atezainek. Hala ere, aurrelariak, saltoa behar bezala egin ezkerro, baloia lapurtzeko aukera izan dezake. Argazkikoak ez zuen baloia harrapatzerik lortu, baina ezin ukatu oso salto dotorea egin zuenik.



**DEBA
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27

**IOSEBA
KONTENEDOREAK**

Uriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18
ARRASATE

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza, ARRASATE Tfnoa: 77 06 07



Zulus: Sabino, Kat, Txinango, Karlos, Kirikixo, Jabitxu, Zula, Imanol eta Katxas.



Argi Ibili: Angel, Ramon, Luma, Pako, Fede, Txema, Do eta Bunder.



Bar Kajoi: Pako, Kiko, Triki, Vicente, Patxi, Iñaki eta Joni.



Los Heredia: Juani, Iban, Andres, Sebas, Jon Mikel, Jon, Joseba eta Pedri.

STIHL

Leniz Motor

- Nekazal makinaria
- Basogintzarako tresnak
- Lorazaintza
- Motozikleten salmenta eta konponketa

Gipuzkoa Etorb., 9 ARRASATE Tfnoa: 79 11 78

JMA



Baloia harrapatzeko ahalik eta ahalegin handienak egin behar izaten dira, baina beti ere joku-arauen barruan; hau da, falta egin barik, itsusia izateaz gain arriskutsua ere izan daitekeelako. Eskerrak ezkerreko jokalariek salto egin duen, bestela ederra hartuko zuen.

Lorategi Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

EMAITZAK

Azken laurdenak

Argi Ibili 6 Arrasate Kirolak 3
Akaitegi Express 8 V. C. Daglas 8
Lorategi Potroak 2 Los Heredia 2
Adelaida 0 G.P. Noski 0

Sailkatuak

- Argi Ibili
- V. C. Daglas (Penaltika)
- Los Heredia (Penaltika)
- G. P. Noski (Penaltika)



M E S O N
M A N O L O

**Eguneroko
janariak eta
enpresa bazkariak**


Bañez Doktorea z/g

**LIZARRA
taberna**

Leintzibar kalea, 2 ARRASATE Tfnoa: 79 72 35

**RUMBA
TABERNA**

Iturriotz, 20 ARRASATE Tfnoa: 79 20 00



**ARRASATE
KIROLAK**

**Astore, Nike, Reebok, Auia,
Adidas, Converse, Mito, Ellesse,
Boreal, Libero, Quicksilver, Le
coq sportif, Millet, Saucony,
L. A. Gear, etab.**

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxe: 77 05 30



Txutak

Penaltiak erabakior

Pronostikoen saltsan busti ginen joan den astean eta zeharo gaizki ere ez zitzaigun atera, lautik bi asmatu genituen eta.

Argi Ibili fin portatu zitzaigun eta esan bezala sailkapena lortu zuen Arrasate Kirolak-i erraz irabazi ondoñen; gainontzeko partiduetan berdintasun handiagoa izan zen, arauzko denboran hautsi ez zena gainera. Akaitegi Express eta V. C. Daglas taldeen arteko neurketa izugarria izan zen, parekotasun gehiagorik ezin da eskatu, berdinketa eta zortzi goletara! Penaltietan, erdifinalerako pasea, gure apustuarekiko errespetu gutxi erakutsiz, V. C. Daglas-entzat izan zen.

Hirugarrenean bete-betea asmatu genuen eta Los Heredia taldearen alde egindako apustuak ez zigun hutsik egin, hori ere penaltika izan bazen ere. Azkenik, ezusteko handiena Adelaida txapeldunak eman zigun, gol bakar bat lortzeko ere ez zen gauza izan eta; horrela, kanporaketa penalty jaurtiketetara erabaki zen eta hortan G. P. Noskikoak hobeak izan ziren.

Orain erdifinalak, ostiral eta igandean, bi partidutara eta berriz, pronostikoen bidetik abiatu behar. Argi Ibili eta Video Club Daglas-en arteko kanporaketan faborito, Argi Ibili taldekoak dira; beraz, faboritoen aldeko apustua. Bigarren kanporaketa Los Heredia eta G. P. Noskik jokatu dute eta printzipioz ez dago diferentzia handirik bi taldeen artean, baina gizonezko intuizioak diostanez Los Heredia finalean izango da. Eta horrela ez bada? Ez da ezer gertatzen, zorionak sailkatzen direnei eta aurten ere onenak irabaz dezala!

DATORREN ASTEAN

Lehen final-erdia

Ostirala

Argi Ibili V. C. Daglas (11etan)
Los Heredia G. P. Noski (12etan)

Bostgarren eta seigarren posturako

Larunbata

Adelaida Lorategi (11etan)
Arrasate Kirolak Akaitegi Express (12etan)

Igandea

Larunbatean irabazten dutenak. Goizeko 10etan.

Bigarren final erdia

Igandea


Los Heredia G.P. Noski (11etan)
Argi Ibili V.C Daglas (12etan)

Foruen



Gure berezitasuna: rabak

Foruen Plaza, 2 Tfnoa: 79 06 16
ARRASATE




EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Legarre Pabilioia. ARRASATE
Tfnoa: 79 62 11



BETI SEGURU



MIKEL LASA

Aseguru artekaria

Maalako Errabala, 33 etxebehea. ARRASATE
Tfnoak: 79 69 00 / 79 69 43



ITURRIOTZ taberna

Girorik jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04

Bi urtez Italiako Milanen Ingeneritza ikasi ondoren, Eskola Politeknikoko irakaslea da Gerardo. Gainera Mondra Sport kirol saioa aurkezten du ATBn.

— Zela, bada, Milanera ikastera?

— Beste lagun batekin joan nintzen. Hemengo Eskola Politeknikoan Injiniaritzaren teknika ikasi genuen eta Milanen goi mailakoa. Han bi urte igaro ondoren, argi gelditu zitzaidan bizimodu oso desberdina dela, batez ere hemengoarekin konparatzen badugu. Milanen, iparraldeko Europako eta Italiako joerak fusionatu egiten dira. Jendearen pentsamoldea eta ideologia oso desberdinak dira, beharbada mafiaren eragina dela eta. Gainera aukera gehiago daude, hemen ez dituzunak eta han denon eskutan dauden aukerak.

— Seguruenik izango dituzu hango anekdotaren batzuk, ezta?

— Bai eta gainera era guztietakoak, kontatuko ditut batzuk: Razismoa adibidez oso argia da ipar eta hego alde artean. Hegoaldeko "Terrones" deitzen zaie, iparraldeko "dirua jaten diela" esaten dute. Bestalde garriak eta batez ere trenak oso txarrak dira. Behin komunean sartuta egin nuen 7 ordutako bidaia, beste inon ez zegoelako tokirik. Mafiaren eragina ere Aipatuko nuke. Hemen pelikuletako zerbait dela ematen du baina egunero gutxienez pertsona bat hiltzen dute han.

— Zelan ikusten duzu Eskola Politeknikoko irakaskuntza?

— Nik bertatik ikusten dut eta dagoen nibel altuaren ondorioz horrek baditu on-

Gerardo Mendizabal

Marrazketako irakasle, eta ATBko aurkezle



dorio onak, era berean, neurri batean irakasleen maila ere igotzen duelako. Etorkizunera egokitzeko prest agertu izan da beti, eta aurreikusten dituen joera berriak sartzen saiatzen da.

— Eta zure ikasleen maila?

— B.B.B. eta injinerutzako 3. mailan ematen ditut klaseak eta denetik ikusten da, baina nagusienez interes gehiago jartzen dute orohar. Gazteek beste joera desberdinak dituzte, beste mentalitatea bat. Bestalde, gazte

arrasatearrek karrera bat aukeratzeko orduan ez dute aukera asko, horregatik Eskolara jotzen du askok, baina argi dago Eskola Politeknikoa ez dela egokia denentzat eta hor dago beharbada arazoa.

— Zelan ATBn kirolak aurkezten?

— Horixe da nik neure buruari galdetzen diodana. Momentu hartan bakante hori zegoen eta proposatu zidatenean ez nuen hartu kontutan, pentsatu nuen zoratu egin zirela. Gero, denborarekin,

esperientzia ona izan zitekeela pentsatu nuen eta horrela, onartu egin nuen. Gainera, orokorrean kirolzalea naiz eta horrek ere laguntzen dit pixka bat.

— Eta ATBn jarraitzeko gogorik?

— Momentuz kirolak aurkeztea nahikoa dut. Medio bezala asko gustatzen zait, baina profesionalen lana hobe profesionalak egitea. Momentu zehatz batean hutsune bat badago eta zerbait berezia egiteko proposapena jasotzen badut, posibilitateak aztertuko ditut eta ikusi egin behar... Gauza berriak ikasteko prest nago eta ateak zabalik ditut proposamen berrietarako.

— Orohar nola ikusten duzu ATB?

— Berez, gaur egun duen herriko paper informatiboa ondo betetzen du eta gainera izan dituen aurrerapenak oso nabarmenak dira, emisio orduak gehituz joan dira eta aurrerapen batzuk ere sartu dituzte. Kalitatea beti hobetu daiteke baina...

— Berba egin Gerardori buruz. Zaletasunak...

— Orokorki mota guztietako musika gustatzen zait, bai klasikoa bai modernoa: rocka, heavy eta abar. Klasi-koarekin lotuta, batez ere pianoa gustatzen zait. Eta jakina, entzun eta praktikatze-ko Choppen da egokiena. Txikitan ikasi nuen pianoa jotzen baina praktika galtzen joan naiz eta orduak sartzen ez badira, azkenean hatzamarrek ez dizute erantzuten. Horretaz gain, yoga ere asko gustatzen zait, erlaxatzeko ezinhobea delako eta gainera gorputz osoa lantzen delako. Beste kirol guztietan bernak edo besoak edo puntu konkretuak lantzen dira baina yogarekin gorputz osoa, eta hori oso inportantea da.

“**Eskola politeknikoa beti etorkizunera egokitzeko prest dago**”

AMAT: Fagor taldearekin bateratu berri

Berrogeitamar eta hirurogeigarren hamarkadetan era guztietako enpresa piloak sortu zen Euskal Herrian, hazkunde garaia zen eta ondo aprobetxatutakoa gainera. Lehen krisialdiaren eraginez, 1975. urtean gutxigorabehera, enpresa askoren egoerak okerrera egin zuen eta urte askotan burua jaso ezinda ibili dira. Geroztik, europar integrazioa etorri da, egoera berrira egokitu ez diren enpresak beste neurri batzuk hartzera bultzatu dituena.

Krisi egoera

A MAT kooperatiba, eta bertan urteetan egin izan diren hodientzako piezak, nahiko ezagunak dira arrasatearren artean. Orain, ordea, krisi egoerak eta Europar sartzak bultzatuta, Fagor kooperatiba taldean integratu da AMAT eta betidanik egin izan duen produktua aldatu egin behar izan du.

Gauzak nolabait zehazteko, esan behar da AMAT kooperatiba 1962. urtean sortu zuela gizon talde batek; helburua, ura eta gasa eramateko balio zuten piezak egitea, fitting-az ezagutzen dena. Hasierako urteak, hasiera gehienak bezala, ez ziren errazak izan eta lantegia martxa onean jarri arte, urte batzuk pasatu behar izan ziren. Lehen urteak pasata, gauzak finkatu egin ziren eta eraikuntza alorraren garape-

narekin batera etorriko zen AMATen garairik onena. Jakina denez, urte on batzuk ezagutu eta gero krisialdia ere iritsi zitzaion eraikuntza sektoreari; ondorioz eta era berean etorriko zen AMAT kooperatibarena.

Irtenbide bila


S ektorearen krisia berez latza bazen, Europar sartzak larritu egin zuen egoera, konpetentzia asko zabaltzen zuen eta. Egoerari berezko irtenbiderik ikusten

ez zitzaionez eta hobetu beharrean okerrera egin zenez, aspalditik AMATeko kooperatibisten artean egon den ideia batek argia ikusi zuen. "Orain arte kooperatiba isolatua izan gara - dio Victor Matak, AMATeko Junta Rektorako partaideetarikoa - baina betidanik pentsatu izan dugu noizbait Arrasateko kooperatiba taldean sartuko ginela. Integrazio prozesuari larogeita-margarren urtean eman genion hasiera. Aipatutako urteko apirilean, lantegian asanblada burutu ginen eta bertan Fagorren integrazioa erabaki genuen, absorzioaren bidez. Guk Fagorren sartzeko interesa genuen eta esan dezaket Fagorrek, bere eskeman sartuz, begi onez hartu gintuela".


Integrazioerako erabakia 1990.eko apirilean hartu zen, eta ordutik hona integrazio prozesua pausoz pauso gauzatzen joan da.

Produktu aldaketa

A ipatutako asanbladan integrazioa egitea erabakitzeaz gain, ordura arte



Ibilgailuen frenoentzako piezak egingo dira AMAT kooperatiban.



Ingurugiroan kutsadurarik ez sortzeko tresnerian inbertsio handiak egin dira AMAT-eko etapa berrian, argazkiko estraktorea esaterako.

AMAT-en egiten zen produktua aldatzeko erabakia ere hartu zen. Dirudienez, Euskal Elkarte Autonomoan fitting-aren alorrean eskaera txikia eta eskaintza handia zegoen; hortik etorriko zen produktua aldatu beharra.

Lehenago produktua utzi eta automozio munduan sartu da AMAT, ibilgailuen disko eta tanbor frenoentzako piezak egiten. Honelako aldaketa bat ezin da egun batetik bestera egin eta tresneria eta langilegoan eragina izan du gainera, produkzio sistema aldatu behar izan da eta.

Produkzio sistemari dagokionez esan behar, fitting-a egiteko tresneria eta biltegiaren dauden materialak saldu behar izan dituela AMAT-ek. Gelma erosi zuen enpresa berari, ATUSARI.

Produktu bat utzi eta beste bat egiten hasteak, tresne-

ria zaharra alde batera lagatzera behartzen du, baina baita berria ekartzera ere. Zentzu horretan, AMAT-ek aldaketa garrantzitsuak egin behar

izan ditu bere fundizioan, Europako mailan jartzeko. Horretaz gain, kontuan hartu behar da AMAT mundu berri batean sartu dela; beraz,

kooperatibaren helburuetariko garrantzitsuen auto-mozio munduan enpresaren homologazioa lortzea izango litzateke.

Azkenik, kooperatibako langileen egoera ere kontuan hartzekoa da, aipatutako aldaketa guztiek eragin handia izan dute eta. 1992. eko hasieran 285 langile zeuden AMAT-en; martxoan fitting-ari utzi zitzaionetik eta frenoentzako piezak egiten hasi zenean, 110 besterik ez ziren geratu. Gainontzekoak? ba gehienek ATUSARENTZAT egiten dute lan, zesio gisa; beste batzuk kooperatiba desberdinetan integratu dira eta, azkenik, jubilazio aurreratuen bidea hartu dute besteek. Normala denez, irtenbidea ez da guztien gustokoa izan, baina badirudi hartutako erabakiak ondo hartu direla.

Talde handien hazkundera

Enpresa txikiek ez dute etorkizunik, edo hori dirudi behintzat. Jende gehiena Europako erronkari aurre egiteko prestatzen ari da eta horretarako elkarganatzearen bidea aukeratu du.

Ezinbesteko bidea zenbait kasutan, arazo ekonomikoei irtenbidea ematea nahi dutenen kasuan, eta prebisio bidea beste zenbaitetan. Arrasaten azken aldean, bi kasu ezagutu ditugu: Gelma eta AMAT; krisi ekonomikoa medio, talde handiagotan sartzeko beharra izan dute biek. Gelmak lehenago lanean darrai, produktua aldatu barik; AMAT-ek, berriz, ahalegin guztiak egin behar izan ditu enpresa kompetente bihurtzeko. Talde handietan bildu beharra ez da enpresa txikien kapritxoa, Gobernuak ere bide integratzaileak bultzatu nahi ditu eta. Horregatik ematen ditu integratzaileak laguntzak. Beraz, badirudi Europa sonatuan enpresa txiki eta bakarrek ez dutela zereginik izango.


**Basabe
jatetxea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84
77 07 94

Altzariak
Diseinua
Apainketa
**M
ARENZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07



Aitor Arnaizek oso lasterketa ona egin zuen 200 metroetako proban

Gure atletek kategoriari eutsi egin zioten

Joan den asteburuan Tolosako Berazubi estadioan Gipuzkoako klubaren arteko txapelketa burutu zen eta Arrasate Astorek sailkapeneko laugarren postua lortu zuen. aurkezten ziren taldeen artean gazteenetarikoa zen Arrasatearra eta etorkizunera begira, horrek asko esan nahi du herrian atletismoan lanean ari direnei buruz.

Kategoriari eusteko lana taldearena izanda, behar bada ez da zuzenegera izango atletak bakarka aipatzea, baina Aitor Arnaizek 200 metroetan lortutako postuak eta Mikel Uribealgok luzeera jauzian egindako 6.81 metroko markak aipamen soilak baino gehiago merezi dute, benetako garrantzia duten markak dira eta.

Froga	Atleta	Marka	Postua
• 100m.	Lorenzo Avila	11.60	4.
• 200m.	Aitor Arnaiz	22.49	2.
• 400m.	Jaime Sanchez	54.28	6.
• 800m.	Gabi Saavedra	2.10.49	6.
• 1.500m.	Alex Saavedra	4.07.08	4.
• 5.000m.	Javier Menchaca	15.40.08	4.
• 10.000m.	Enrike Kabiketa	33.42.05	5.
• 110m.h.	Carlos Vitoria	18.08	6.
• 400m.h.	Juan Carlos Martin	57.9	4.
• 3.000m.	Jose R. Petrefias	10.33.5	5.
• 10km martxa.	Jose A. Fuentes	55.02	3.
• Pisu jaurtiketa.	Asier Fdez. Arrolobe	12.15	3.
• Disko jaurtiketa.	Mikel Iturbe	36.68	2.
• Txabalina	Mikel Bastardo	28.10	8.
• Mailu jaurtiketa	Aitor Urizar.	39.54	5.
• Luzeera jauzia	Mikel Uribealago	6.81	2.
• Altuera jauzia	Jokin D. de Lezama	1.84	5.
• Jauzi hirukoitza	Miguel Sancho	11.40	8.
• Pertika.	Javier Blanco	3.10	6.
• 4 x 100		deskalifikatuak	
• 4 x 400			3.

Hurrengo partidua

Berdinuketarekin bueltatuko zela zirudienean, Mondrak Gernikan galdu egin zuen joan den asteko partidua, azkenengo minutuan. Partidua txarra izan zen eta berdinketarekin amaitzeko meritua besterik ez zituzten egin talde biek.

Aurtengo denboraldiko partidurik garrantzitsuenak du Mondrak igandean honetan, puntu biak eskuratuz gero kategoriari eusteko arazorik ez du izango eta. Baina partidua oso gogorra izango da, duda barik. Bisitaria Zornotza taldea dugu, oraingoz sailkapeneko hirugarren postuan dagoena eta igo ahal izateko lau lehenengoen artean sartu nahiko duenez Atxabalpera zerbait eramateko gogo biziz etorriko da.

Beraz, arima eta bihotza jarri beharko duten bi talderen arteko neurketa ikusi ahal izango da igandean Atxabalpeko zelai gainean. Hori dela eta ez da faborito argirik agertzen; sailkapenari begira bizkaitarrak liriateke, baina kontuan hartu behar da Mondra zerbait lortzera behar-tuta dagoela eta gainera jokalarik gehienak errekupe-ratu dituela.



Kabia altzariak


Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70



PODIUMA

**JOSE LUIS
BEITIA**

**Bizitza pilota eta
futbolaren artean**



Jose Luis Beitiaren zaletasunik handiena pilota da eta hogeitau urte daramatza paletaz jokatzen. Ondo gogoratzen du gaztaroa. *"Jende gehienak pilotan jolasten zuen. Zentzu horretan, orain pilotarako zaletasuna galdu egin dela esan daiteke, ez dago hilda baina oso jende gazte gutxi dabil, batez ere palaz. Zergatik? ez dakit, normalean aipatzen diren arrazoiak aitzakiak iruditzen zaizkit"*.

Jendeak zaletasuna galdu egin duela, baina Beitiak gazetako ilusio bera dauka, astero txapelketaren bat jokatu behar balu bezala. *"Astean hiru aldiz joaten naiz frontoira, egun batean eskuz jokatzen dut, beste baten paletaz eta hirugarrenean pala motzez. Txapelketak atsegin ditut, baina ez baleude berdin disfrutatuko nuke; inportanteena ez da irabaztea, garrantzi handiagoa dauka bizimodu bat aukeratu, kirol bat egin eta iharduera horretatik sortzen diren harremani eusteak. Hala ere, aurten erramintako modalitate guztiak sartu dituzte herrien arteko txapelketan eta uste dut oso neurri egokia izan dela"*.

Paletaz baino eskuz jokatzea gehiago gustatzen zaio Jose Luisi, baina berak aitortzen zuenez palaz eskuek

ez omen dute sufritzen eta gainera adinaren aurrera joanda ere, ondo jokatzekean kirola omen da. *"Ondo enpatatzeak du garrantzi gehien, hau da: pilotari eman behar zaio palaren partearekin ematea. Zaratan nabaritzen da enpaleona"*.

Pilotaz, eta zehazki paletaz hitz egiteko aukera ematen du Jose Luis Beitiak, baina baita futbolaz ere. Beitiak Mondra, Eibar eta Alavesen jokatu zuen, futbolari eskaintako hamar urtetan zehar. *"Futbolearen ere oso gustoria jokatu dut, baina orain normalean partidu bat ikusten dudanean aspertu egiten naiz. Gaur egun ere, ahal dudan guztietan jokatzen dut nik futbolearen. Bat aukeratzeotan? sentimenduz eta ondo pentsatzeko denbora emanez gero, pilota esango nuke, baina bapatean erantzun behar izan esker, ez nuke jakingo pilota edo futbola zein aukeratu"*.

◆ **Deba Arroa pilota txapelketa**

Deba Arroa txapelketaren barruan joan den asteburuan Iturripen bi partidu jokatu zituzten arrasatearrek, infantiletan ermuarren aurka eta jubenetan elgetarrek. Infantiletan galdu egin zuten arrasatearrek, 15 eta 18; jubenetan, berriz, irabazi 22 eta 6. Maiatzaren 6an, Arrasateko taldea txapelketa berberaren barruan Elgetara joango da.

◆ **Mondrako neskek erraz irabazi**

Mondra eta Aretxabaletako emakumezko taldeen arteko partidua jokatu zen Atxabalpen joan den igandean. Aurten bi talde hauen artean izan diren neurrak guztietan bezala, arauzko denbora bukatu eta gero arrasatearrek nagusi, oraingoan 2 eta Oko emaitzaz. Beraz, aparteko eragozpenik gabe Mondra irabazle eta emaitza horri esker sailkapeneko lehen postuan.

◆ **Finala jokatuko**

Joan den asteburuan Zarautzen 16 eta 18 irabazi ondoren, Arrasate Eskubaloi taldeko jokalariek Federazio Txapelketako finala jokatzeke aukera guztiak dauzkate. Azken partidu hori irabazteak izugarritzko garrantzia zuen arrasatearrentzat, Zarautz taldea bigarren postuan zegoen eta. Emaitza horri esker, Arrasate Eskubaloi taldea lehen postuan dago, bigarren sailkatuarekiko bost puntutako abantailaz.

◆ **Saskibaloian, berriz porrotak**

Gizonezko zein emakumezko saskibaloi taldeek galdu egin zituzten joan den asteko partiduak. Gizonezkoek, 89 - 69 galdu zuten Muebles Martinen aurka. Emakumezko taldeari dagokionez, Jarrilleros taldearen aurka galdu zuen etxean, 45 - 52 eta orain sailkapeneko hamargarren postuan dago, jaisteko arriskuaz.




EE.BB.

Partance

- Ikasi ingelesa "rancho" amerikar batean.
- Gazte eta helduentzako ikastaroak Carolina del Norte famili-giro sanoan.

Informazioa: Ferrerías, 11 etxabea.
Tfnoa: 77 06 83



IRLANDA

Partance

- Ingelesko ikastaroak eta kirola gazte eta helduentzat.
- Arrasateetik bertatik lagunduta.
- Familia bikainak.

Informazioa: Ferrerías, 11 etxabea.
Tfnoa: 77 06 83

Gabriel Elorriaga Dka.

**Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua**

Santa Cruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54



ARRASATEKO UDALA

JOSKINTZA INDUSTRIALA

I K A S T A R O A

- **Edukia:**
 - Josteko makinaren erabilpena jostintza industrialara katean egiteko.
 - Kooperatiba eta enpresa-gestioari buruzko prestakuntza.
- **Destinatariak:** Enplegu gabeko emakumeak, gutxieneko jostintza ezagupenekin eta lan-munduan sartzeko prest daudenak.
- **Zentrua:** M.C.M.ren pabiloi industrialara. Nafarroa etorbidea.
- **Plazak:** 30
- **Izen ematea eta matrikula:** 1992ko maiatzaren 15a arte.
- **Hasiera:** maiatzaren 25ean.
- **Bukaera:** 1993ko martxoaren 30ean.
- **Ordutegia:**
 - Lehen hiru hilabeteetan: egun erdiz, goiz edo arratsaldean, goizeko 8etatik 12etara eta arratsaldeko 2etatik 6etara.
 - Azken sei hilabeteetan: egun osoz, goizeko 8etatik 12etara eta arratsaldeko 2etatik 6etara.
- **Ikastaroen iraupena:** 1.200 ordu.

Informazioa eta matrikula:

Arrasateko Udala (Enplegu-Dinamizatzailerak)

Tfnua: 79 09 00 edota Deba Garaiko Mankomunitatean

Magisteritza bai, oraindik ere

Maisu-maistra gehiegi dagoela ere entzun dugu. Ez omen da inor "kolo-katzen": hor omen dabilta dozenaka kale kantoietan, diploma ganbaran lizuntzen ari omen zaielarik... Egia ote, irakurle? Ez ote du gure gizarteak maisu-maistra gehiagorik behar?

Egia da, bai, azken urteotan ez dela jende berri asko sartzen irakaskuntz sisteman; egia da sistema auto-alimentatu egiten dela, neurri batean behintzat, bere burua premia berrietara moldatzeko. Baina, hala ere, hezkuntz eskakizunak gero eta zabalagoak izanik (teknologia berriak, "zehirak", euskalduntze prozesua...), bada oraindik betiko irakaskuntz arloak eraberritzeko lanean hasten den maisu-maistra gazterik.

Eta bestalde... Oker gabiltza pentsatzen badugu irakasleak eskolan bakarrik behar dituela gure gizarteak.



Oker, haurren mundura mugatzen badugu beraien egin-kizuna.

Gaurko munduak irakasleak behar ditu, besteak beste, pertsona helduak alfabetatzeko, gazte marginatuei laguntzeko, kultur ekintzak suspertzeko, jendea (eta instituzioak) euskalduntzeko, kontsumitzen erakusteko,

gure mendi eta soroak errespetatzen erakusteko... eta, oro har, pertsonekin lan egitea eskatzen duten mota guztietako iharduerak garrantiaz aurrera ateratzeko. Eta ez da gutxi.

Gero eta irekiago den gure gizarte honek, eta horregatik aberatsago eta (baina) arriskutsuago, noski behar duela

oraindik nork erakutsi dion ezagutzen, nork erakutsiko dion bizitzen. Horregatik, nekez ikusiko duzu maisu-maistrarik, eskuak poltsikoan, gure kale kantoietan.

JESUS M. GARMENDIA.
ESKORIATZAKO IRAKASLE
ESKOLAKO ZUZENDARIA.
HEZIBIDE

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua EKINTZAK

Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Gizarte-Ekintza



kutxa

• **Goizez (9.00-12.00)**
"Emakumea eta autoenplegua"

• **Arratsaldez (15.30-21.00)**
Eskulan tailerra: Patroigintza eta jantzigintza.
Sukaldaritza. Psikologia-Hezkuntza pertsonala.
Puntua eta gakorratza (Gantxiloa).
Filosofia ikastaroa. Marrazki eta pintura.
Gitarra ikastaroa. Tertulia eta hitzaldi-solasaldiak.

**Hasiera: apirilaren 27an
INFORMA ZAITEZ!!**

Sta Teresa, 12 Tfnoa: 79 04 59 (Arratsaldez) ARRASATE



Hikari buruzko ihardunaldiak

San Frantzisko Xabier ikastolaren 25. urteurrenean

Arrasateko San Frantzisko Xabier ikastolak 25. urteurrena betetzen du aurten eta ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Ekintzen artean, "Hika" tratamenduari buruzko ihardunaldiak dira datorren maiatzaren 19tik 28ra burutuko direnak. Antolatzaileen esanetan: "Gaur egun mugitzen garen tesuinguruetan, hika erabiltzea zilegi da; Arrasaten oraindik, nahiz eta zoritxarrez asko ez izan, banaka batzuk erabiltzen dute". Hau horrela izanik, ospakizun hauetan toki berezia eskaini diote, bere egoera plazaratu nahian.

Bi helburu nagusi azpimarratzen dira: ikastolako ikasleak sentzibilizatzea eta hikaren inguruko gai ezberdinak mahai gainean jartzea.

Bi ekintza berezi burutuko dira: batetik ikasleei begira eta bestetik irakasle eta gainontzeko euskaltzaleei begira. Ikasleentzat hika




erabil daitekeen hainbat egoera irudikatuko dira eta eskolako programazio barruan ekintzak eta ariketa bereziak egingo dira. Irakasleei eta gainontzekoei hitzaldi sorta batzuk zuzenduko zaizkie. Bost egunetan zehar. Maiatzak 19 asteartean "Arrasateko euskararen azterketaren aurkezpena" ize-

nekoa izango da, Jerardo Elortzaren eskutik; 21an "Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak" Xabier Alberdi Larizgoitiarekin; 25an "Hika morfologia" Beñat Oihartzabalen eskutik; 26an "Hika telebistako pelikuletan" Xabier Amurizarekin eta 28an "Hikak badu

etorkizunik? Euskalzale baten ikuspegitik" Patxi Altunarekin. Guztiak Monterronen izango dira arratsaldeko 7etan, 25ekoa ezik, hori arratsaldeko 5etan izango da eta. Matrikula dohain izango da eta epea maiatzaren 11n bukatuko da.

14.30 - 16.00

KALE KANTOIAN



HERRI Irratia



Radio POPULAR
GIPUZKOA




Laxaro
Azkune

OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99.8

Santi Arana

Tuna profesionala sortzeko bidean



Biteri Egoitzako tunaren bigarren belaunaldiko partaidea dugu Santi. Gaur egun tuna eskolatik kanpo ezagutu eta zabaltzeko lanean ari dira.

— Noiz eta zergatik sortu zen tuna?

— Orain dela 7 urte sortu zen lehenengo ideia bat, batez ere egoitza barruan ekintza kultural bezala zerbait egiteko ideia zegoelako. Irtenbide posibleak aztertu eta unibertsitate giroarekin lotura handia zuelako, azkenean tuna sortzeko lanean hasi ginen. Horretarako Udaletxe, Foru Aldundi, eta Lankide Aurrezkiari diru laguntza eta subentzioak eskatzen hasi ginen.

— Orokorki, nolako harrera izan duzue?

— Denetik pasa zaigu. Hasi ginenean askok ez zigun aurpegi onez begiratzen eta oraindik ere pertsona nagusi eta gazteekin ere gauza bera gertatzen zaigu. Jende askok uste du tuna erdelduna edo Castilako gauza bat dela eta hori ez da egia, guk abesti asko euskeraz abesten ditugu eta asko betiko kantuak dira: Boga Boga

eta abar.

— Beste tunak oso desberdinak dira?

— Logroño, Madril edo Toledoko tunan ez da edozein sartzen, pribilegio bat da bertan egotea, talde kualifikatuagoak dira eta. Egoitzan bizi garenok bakarrik osatzen dugu tuna, eta ikasturtean zehar bakarrik biltzen gara. Hasi egin gara bakarrik eta denborarekin hobetuko

“Oraindik askok ez digu aurpegi onez begiratzen”

dugu tuna.

— Sartzeko prest dagoenari eskatzen diozue prestakuntza berezirik?

— Momentu honetan, 14k osatzen dugu taldea eta sartzeko prest dagoenari ez diogu inolako prestakuntzarik eskatzen, ikasteko interesa jartzen badu, nahikoa da. Gehienetan, sartzen direnek ez dute ideia handirik izaten, horregatik entsaiu bereziak egin behar izaten dituzte. Partiturak irakurtzeko eta tresnak jotzeko ohitura lortzea da inportanteena eta hori orduak sartuz bakarrik lortzen da.

— Eskolatik kanpo ere jotzen duzue?

— Gehienetan eskolako ekitaldietan jotzen dugu baina kasu berezietan, kanpotik deitzen digutenean, inguruko herrietara ere joaten gara kantatzera, azkenengo aldiz Oñatin egon ginen. Jendea oraindik ez dago oso ohituta tuna entzutera eta ezagutzen doan heinean, uste dugu deiak eta gonbidapenak ugaltzen joango direla. Bestalde, askotan biltzeko arazoak izaten ditugunez, ezetza ematea ere gertatu zaigu, udan eta ikasurtea bukatzen denean.

◆ San Juanetako kartela

Datorren San Juan jaientarako kartel lehiaketa zabalik dago jadanik. Baldintzak ere argitaratu dira. Arrasateko edozeinek aurkez dezake kartela eta teknika libre izango da, 50 50 neurrikoa eta “1992 San Juan Jaiak Arrasate” testua agertu behar du. Saria 100.000 pezetako izango da. Maiatzaren 22a baino lehen bidali behar duzue Kultura saileko Bulegora. Kartel guztiak izenik gabe aurkeztu behar dira, sobre itxi batean egilearen datu guztiak emanez.

◆ Kataluniako abesbatza Eskoriatza

Kataluinako Capellades herritik, Noves Veus abesbatza etorriko da Eskoriatzara astebukaera honetan. San Joseko zubian Gorasarrikoak izan ziren Batzelonako herri horretan eta orain hangoak datoz. Ostira-lean, bazkaria izango dute Errioxa aldean. Larunbatean Donostia bisitatuko dute eta iluntzean Eskoriatzako udaletxean harrera egingo zaie. 8.30etan kontzertua eskainiko dute San Vitorren. Guztira 51 gizon-emakume etorriko dira.

◆ “De Treville” pastorala

Maiatzak 3 igandean Zuberoako Iruri herrian “De Treville” pastorala izango da. Seguruenik Arrasatear asko bertara hurbilduko dira autobusa ere antolatu da eta.

ITSASKI

arrandegia

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate 79 98 94

ENARA
OSAGARRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate



“EDERTU”
ileapaindegia



San Andres auzoa. 79 04 28

Aste gazte

Telebistangazteak oso modu alai eta erakargarrian azaltzen diren bitartean, prentsa sentzazionalistan "arazo" bezala agertzen dira sarritan.


Cecilia V. Feilitzen.

Dirulaguntzak

• Hizkuntz ikasketak atzerrian sakontzeko dirulaguntzak. 18 - 25 urte bitarteko gazte eta hezkuntza ertainteko ikasleei zuzenduak. Dirulaguntza: 70.000 - 80.000 PTAtakoa. Eskatze-ko epea: maiatzak 14.

Informazio turistikoa

• Nora zoaz oporretan? Egun hauetan Gazteentzako Informazio Bulegora alde



guztietako foileto, mapa, plano, e. a. ailegatzeko ari da. Honez gain, aterpetxeak, kanpinak, nekazal turismoa, hotel - hostalak, e. a. ri buruzko informazio zabala eskura dezakezu.

Udako unibertsitateak

• Estatu espainoleko unibertsitateetan burutuko diren udako ikastaroen berri ere ari gara jasotzen.

Egonaldiak familia euskaldunetan

• Zure euskara hobetu nahi izanez gero, programa honek udan hilabete familia euskaldun batekin emateko

aukera eskaintzen dizu. Uztailetik irailera bitartean, 7 herrialdeetan. Adina: 18 - 35 urte. Prezioa: 15.000 PTA. Izena emateko epea: maiatzak 29.

Bekak

• Hezkuntza Bateratu Zentruetan barmetegi erregimenean ikasteko bekak. Eskatzaileak: LH, BBB, UBI eta REM ikasketak burutzen ari diren gazteak. Epea: maiatzak 14.

Lehiaketak

• Eibarko Sanjuanetarako kartel-lehiaketa. Gaia, tek-

nika eta kolore libreak. Neurriak: 70 x 50. Sariak: 60.000, 15.000 PTako akzesita eta sari berezi bat 14 urtetik beharagoentzat. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 22.

Zeramika topaketak

• Zarautzen, uztailean zehar. Tailerrak: keramika eskulturan eta keramika arkitekturan, hitzaldi eta mahainguruak. Matrikula-prezioa: 25.000 PTA.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua, 77 00 65

"BELAUNALDI GAZTEA"

III. Argazki lehiaketa

• Partehartzaileak: 14-35 urte bitartekoak.

• Zuribeltz nahiz koloretan.

• Sariak:

1. 60.000 PTA

2. 40.000 PTA

3. 30.000 PTA

Akzesita: 20.000 PTA

Lanak aurkezteko epea: urriak 2



Jabier Ozaeta

ETXEBIZITZAK

- **Persona bat behar da hiru irakaslerekin pisua konpartitzeko.** Dei egin ordubatek 2etara. Tfnoa: 79 71 16.
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Langile batzuk etxebizitza bila gabilza** Arrasate edo inguruetan. Tfnoa: 77 04 58.
- **Etxebizitza behar dut alokairuan.** Tfnoa: 79 51 21.
- **Ekainetik aurrera, ekaina barne, logela bat dugu alokagai ikasle etxebizitza baten.** Interesatuak dei egin asteburuetan 94 - 630 85 40. Oso merkea.
- **Bi neskek etxea behar dute alokairuan** Arrasate edo inguruetan. Dei egin 79 31 00, 127 luzapenera. Gotzone edo Maite.
- **Etxebizitza salgai.** Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.

LANA

- **Ostiral edo larunbatetan ingelesa erakusteko** norbait behar dut. Tfnoa: 79 38 01.
- **23 urteko neska gertu etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko.** Tfnoa: 79 97 30.
- **Fisikako klase partikularrak emateko fisikaria behar da** (Euskaraz edo erdaraz). Tfnoa: 79 48 09. Itziar.
- **Esperientziadun emakume euskalduna ospitalean gaisoak zaintzeko gertu.** Gauzez nahiz egunez. Tfnoa: 79 34 51.
- **Emakume euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Dei egin 8etatik aurrera 77 00 50 tfnora.

- **Sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko gertu nago** asteburuetan. Tfnoa: 79 24 58.
- **Eskoriatzan klase partikularrak emango nituzke** (matematika eta fisika). Talde txikietan (4koak gehienez). Erdaraz. Tfnoa: 79 34 26.
- **FP2 mailako kimika irakatsiko didan** norbait behar dut. Dei egin 79 50 53 tfnora.
- **Aretxabaletan andra euskalduna gertu umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 07 75.
- **Umeak eta etxeko lanak egiteko** euskaraz dakien emakumea behar da. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 25 12 tfnora.
- **Neska lizentziatu berriak klase partikularrak emango lituzke.** Euskara eta ingelesarekin. Tfnoa: 79 04 07.
- **Marrazketako klase partikularrak behar dira** F1 mailakoa (erdaraz). Tfnoa: 79 24 33. Ander.
- **Marrazketa diedrikoko klase partikularrak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 79 04.
- **Marrazketa linealeko klaseak emateko** norbait behar dut. Tfnoa: 79 72 47.
- **Emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.** Dei egin 8.30etatik aurrera 79 68 87 tfnora.

SALEROSKETAK


- **Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak aldatuko nituzke.** Interesatuak dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- **la berria dagoen akordeoia salgai.** 120 baxu. Beltza. Dei egin gauzez 79 80 91 tfnora.
- **Kotxeko gurpilen kubiarta bi salgai.** Oso egoera onean. Michelin MXV2, 185-60-13 neurrikoak Tfnoa: 79 03 88.
- **CDU ur-berogailua salgai (Duplex)** Fagor, oso egoera onean. Tfnoa: 79 09 52.
- **Peugeot markako paseoko bizikleta eta Orbea Siroko karreterakoa salgai.** Gutxi ibilitakoak eta oso egoera onean. Karreterakoak barruko

frenoak kilometroak kontetako eta platuak karreratakoak ditu. Dei egin 79 71 30 tfnora. Aitor.

- **Renault 4 zuri eder bat salgai.** Egoera onean dago eta gainera merke. Dei egin 94 - 475 33 86 tfnora. Ikusi, asteburutan ikus dezakezu. Aprobetxatu!
- **R-7 egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 31 20.
- **Karabana ekipatua salgai.** Sei lagunentzako tokia. Errioxako Bañareseko kanpinean jarria. Tfnoa: 79 20 19.
- **Honda NS 125 F egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 97 48.
- **Bost lagunentzako kanping-denda salgai.** Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.

DENETARIK

- **Urrezko kate bat topatu dugu kalean, zurea bada** dei egin 7etatik aurrera 79 33 35 tfnora.
- **Musika talde afizionatu batek teklista behar du.** Tfnoa: 73 01 17.
- **Urrezko belarritakoa galdu da.** Inork aurkituz gero dei dezala 79 53 21 tfnora. Saritua izango da.
- **Giltzak galdu nituen Monterron aldean.** 9 giltza kartera bati lotuta. Aurkitu badituzu, Arrasate Pressera ekarri. Eskerrik asko.
- **Astelehen goizetan zazpiak laurden gutxiago aldera Donostiara kotxez joaten den** norbaitekin egongo ginateke. Tfnoa: 79 13 83.
- **Urrezko txapa aurkitu nuen kalean martxoak 18an.** Izena eta eguna jartzen ditu. Galdu duenak dei dezala 79 20 47 tfnora.
- **Idoiari eta Joxe Juan.** Zorionak, zuek bai balixo dozuela. Kuadrilakuek.
- **Ikasle batek bidai-poltsa galdu du.** Topatu baduzu utz ezazu mesedez Musakolako gasolindegian, guztiz beharrezkoa dut bertan zegoen materiala eta.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**

Julia Narbaiza Loidi,
apirilaren 25ean. 83 urte.

Eulogia Carrión Marin,
apirilaren 27an. 33 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Estela Perez

Eslu ileapaindegikoa



- **Toala zuriak ala kolorezkoak?** Kolorrezkoak.
- **Ilea moztu ala permanenteak egitea?** Ilea mozte errazagoa da.
- **Ur hotza ala beroa?** Hotza, ilearentzako askoz hobea da eta.
- **Jarlekua gurpilekin ala barik?** Gurpil barik.
- **Lan egiteko batarik?** Bata baino, hobeto uniformea.
- **Bezero gazte ala helduak?** Denetik behar da. Goizetan nagusiak eta arratsaldetan gazteak.
- **Irakaskuntza euskaraz ala erdaraz?** Euskeraz.
- **Gomina ala bitsa?** Kasu batzutan beharrezkoa da gomina, baina gutxitan.
- **Berokia ala plumiferoa?** Plumiferoa komodoagoa da.
- **Feminismoaren aldekoa?** Ez.
- **Ondo gosaltzea ala hamarretakoa egitea?** Nahiago dut goiz erdian hamarretakoa egitea.
- **Lo hartu baino lehen zerbait irakurtzeko ohiturarik?** Ez, normalean ez.
- **Larrosa zuria ala gorria?** Gorriak.
- **Urrea ala zilarra?** Urrea, noski.
- **Etxekolanak ala ilea mozte?** Etxean baino nahiago dut ileapaindegian lan egitea.
- **Iragana ala etorkizuna?** Iragana ez zait gaizki joan eta etorkizuna ikusi egin behar.
- **Argi zuri ala horiak?** Zuriak.
- **Ile txertaketaren aldekoa?** Ez, oraindik emaitzak ez daude oso argi.
- **Astrologian sinisten?** Ez.
- **Ilea indartzeko metodorik onena?** Janari osasungarria errespetatzea eta txanpu on bat erabiltzea.
- **Txanpana ala likorra?** Bata ere ez.
- **Kostaldea ala mendia?** Kostaldea, dudarik gabe.

Bertsotan

Langileen eguna

1
Langileen eguna maiatzak batean aurten ere atera gara atakean gure eskubide ta beharren eskean ez dugu inor ere utziko pakean gure eske horiek lortu bitartean.

2
Jai daukagula eta denok gaude pozik nor bere ekintzetan da goizean goizik zer ospatzen den ere ahaztuta kasik jai egun bat ez dela esan nahi nuke nik protestak azaltzeko egun soil bat baizik.

Saioa Arando



MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduktzioa
Offseta

Ferrerias. 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



ELMA, Akzionisten 1. Bazar Orokorra. 1925

E

LMA S.A.ko Akzionisten 1. Bazar Orokorrean, 1925ean ateratako argazkia dugu aste honetan Arrasate

Abarrategi, Basilio Urzelai, Tiburtzio Jauregi, Angel Egidazu, Andres Arregi, Pantaleon Leibar, Txomin Egidazu, Ezezaguna, Eusebio Arregi, Pedro Jose Zabaleta, Anselmo Arregi, Amozarrain, Elkoro eta Julio Agirrebeitia.

Beheko ilaran jarrita Joakin Arregi, Ugalde, Patxi Velez de Mendizabal, Felix Arano, Gregorio Etxebarria, Mateo eta Daniel Arkauz.

Pressen orrialdetara dakarguna. Ezkerretik hasita zutik, Roman Velez de Mendizabal, Eugenio Etxebarria, Patxi Mendizabal, Martin

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua

Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96

Telefax: 793412

LETE
Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia


- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19

ZALEKI

Urdaitegia
Oilaskotegia

Bañez Dokorea, 12
ARRASATE Tfnoa: 79 48 34

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Zopa ahoratzeko tresnak
8. +10+12+18+19=Historiagile arrasatearra
9. Koordinadora Abertzale Sozialista
10. Ikus 8
12. Ikus 8
14. (Ald.) Zizare
15. Antz
16. (Ald.) Entseiu
18. Ikus 8
19. Ikus 8

Bertikalak

1. Golkoko Elkarlaguntza Kontseilua
2. Nahasgaia
3. (Ald.) Ardantze
4. Atzizkia, egile ideia adierazten
5. Abaraska
6. Radioa
7. Mendia Araotz eta Degurixa artean
11. Eginbeharraren bokalak lerroan
13. Suitzako hiri eta leku izena
14. (Ald.) Oraindik ordaintzeko
17. Euskal atzizki femeninoa



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



Telebegi

Asteko zinea Rain Man

Rain Man, Eurigizona da aste honetan aukeratu dugun pelikula. Pelikularik onenarentzako oskarra, urrezko bi Globo eta Berlineko zinemaldiko urrezko hartza irabazi du. Galdu ezineko aukera: Dustin Hoffman, autista paperean eta Tom Cruise bere anaiaren pertsonaian.

Inolako zalantza barik, telebista lokalen *booma* iritsi da Euskal Herri zabalera.

Orain dela gutxi arte hiru esperientzia zeuden bakarrik, hirurak Gipuzkoan: Andoaingo *Canal On*, Eskoriatzako *Telesko*, eta geurea, *ATB*.

Iniziatiba berriak jaito eta gauzatu dira, ordea; eta Zarautzen, kasu, baten faltan bi herri-telebista ari dira martxan gaur egun.

Bai, telebista lokalen sukarra bizi dugu. Azken boladan Eibartik, Irundik, Gasteizetik, Ordizitik... eta Extremadurako Almendralejoko Udaletzeko ordezkariak ere izan ditugu bisitari *ATB*n. Gure *txiringittoa* ezagutzera hurbildu zaizkigu, galdezka, gure proiektuaren berri zehatza jakin nahiean.

Ez gara geure buruari lorak dohainik botatzen dizkiogun horietakoak, baina dauzkagun baliabideekin eskaintzen dugun produktua ikusterakoan, gehienak harrituta geratu direla emango nuke.

Eta bisitari guztiei zera antzeman genien, telebista bat sortu nahi dutela, geurea bezalakoa edo dexente antzerakoa.

Bai. Lehenik kooperatibekin, gero *AED* edota *Arrasate Pressekin*, eta orain *ATBrekin*... kontua da kanpotarrek "eredu" abizena jarri digutela mondrauetarroi!

Mondrauetarrak eredu!
Baita gora eta gora doan herri telebisten munduan ere.

JON ANDUEZA

Mondragol

Mondra-Amorebieta
Partidu erabakiorra

Igandean
9.15etan

Erreportaiak

Maiatzaren 1a
Berdeguneak
San Andreseko jaiak

Asteartean
8.20etan

ATBketan

Umorea eta lehia
bizi-bizian

Osteguna
9.20etan

Programazioa

31

IGANDEA

9.15. *Mondragol*. Amorebieta-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena, Jose Luis Ezkurraren ardurapean.

4

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Arrasateko azken albistegiaren laburpena.

9.20etan, *Mondra Sport*. Pe-lota, saskibaloia, eskubaloia, futbola... Gerardo eta Mikelen eskutik.

9.50. *Asteko zinea*: Rain Man

5

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar jasotako informazioa.

8.20. *Erreportaiak*. Eguneroko aktualitateko hiru gai aztertuko dira.

9.50. *Asteko zinea*: Rain Man

6

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.

9.15. *Txatxaran*. Arrasateko gazteak protagonista, berbetan, kontu kontari.

9.50. *Asteko zinea*: Rain Man

7

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Jon Anduezak, egunean zehar bildutako gaiak hurbilduko dizkigu.

9.20. *ATBketan*. Sekulako lehiaketa. Bi gazte talde lehian, afari eder bat saritan lortzeko.

9.50. *Asteko zinea*: Rain Man

8

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.


9.30. *Ostiral musikala*. Marta Izagirrek musikaren arloan dihar duten pertsonaiak ekartzen digu.

9.50. *Asteko zinea*: Rain Man.

JARRI ZURE OINETAN

140 CV.ko

RENAULT INDARTSUA



GUK JARRIKO DIZUGU ESKURA

BALDINTZARIK EGOKIENETAN

RENAULT 21 GTI 12 V.

RENAULT 21 TXI

RENAULT 19 16 V.

CHAMADE 16 V.

CLIO 16 V.

ZATOZ PROBATZERA GURE EDOZEIN SALTOKITAN

MECA, S.A.



**RENAULT
EUSKADI**